

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak % 2,9 igo ziren 2005eko lehenengo hiruhilekoan

Merkataritza espezializatuko salmentek urte arteko % 3,1eko hazkundera izan zuten eta ez-espezializatukoek % 2,5ekoa

Eustatek emandako datuen arabera, 2005eko lehenengo hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak % 2,9 igo ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko berdinarekin aldean. Hazkunde nominal hori, prezioen eragina kenduta, % 1,9ko urte arteko bilakaera positiboa izan zen, balio errealetan.

URTE ARTEKO HAZKUNDE-TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2003	I	4,2	4,7	3,0
	II	2,1	2,2	1,8
	III	2,1	2,1	2,1
	IV	2,8	3,1	2,3
2004	I	1,5	1,2	2,1
	II	4,4	7,0	-0,5
	III	5,4	7,2	2,3
	IV	5,2	7,7	0,2
2005	I	1,9	3,1	-0,7

Iturria: EUSTAT

Tradiziozko txikizkako merkataritzaren (espezializatua) salmenta nominalak % 3,1 igo ziren 2005eko lehenengo hiruhilekoan, 2004ko hiruhileko berdinarekin aldean. Igoera nominal hori, sektore desberdinetako prezioen igoeren eta jaitsieren emaitza gisa, hazkunde-tasa berean mantendu zen, hots, % 3,1ekoan, balio errealetan.

Balio nominaletan, gune ertain eta handietako txikizkako salmentak (ez-espezializatua) % 2,5 igo ziren urteko lehenengo hiruhileko horretan. Hala ere, urte arteko tasa errealearen aldaketa % -0,7koa izan zen, 2004ko hiruhileko berdinarekin alderatuta.

Txikizkako merkataritza espezializatuan, urte arteko hazkunde-tasarik handiena *pertsonen hornikuntzaren* sektorean izan zen: % 9,3ko hazkunde nominala, % 9,1ekoa balio errealetan. *Etxearen hornikuntzako* ondasunek, berriz, % 2,8ko bilakaera nominal negatiboa izan zuten, eta balio errealetan, % -4,8koa. Jateko produktuen salmentak (% 0,0) mantendu egin ziren balio nominaletan, baina % 3,6ko atzerakada izan zuten balio errealetan. Bestalde, *beste kontsumo-ondasun batzuk* partidak

(kirolak, jostailuak, optikak eta liburu dendak, besteak beste) % 1,8ko hazkunde nominala izan zuen, baina bere prezio deflazionisten eraginez, tasa hori % 4,8ko tasa izan zen, balio errealetan.

Lurrlade historikoka, 2005eko lehenengo hiruhileko horretako txikizkako sektorearen salmenten hazkunderik handiena Bizkaian izan zen, % 4,1eko urte arteko igoerarekin: txikizkako merkataritza espezializatuaren salmentak % 4,4 igo ziren eta % 3,5 ez-espezializatuarenak.

Arabak bitarteko bilakaera izan zuen % 2,2ko hazkundearekin: % 3,2 igo ziren merkataritza espezializatuaren salmentak, eta % 0,6 ez-espezializatuarenak.

Lurraldeka, txikizkako merkataritzako urte arteko hazkunderik txikiena Gipuzkoan (% 1,2) izan zen: % 1,1eko hazkundera izan zuen txikizkako merkataritza ez-espezializatuak, eta % 1,5ekoa ez-espezializatuak, biak ere urte arteko aldakuntza nominala baliotan.

2004ko lehenengo hiruhilekoko batez bestekoaren aldean merkataritza sektoreko enpleguak izan zuen hazkundera % 3,1ekoa izan zen, eta lurraldeka honakoak izan ziren datuak: Bizkaian % 4,3ko hazkundera, Gipuzkoan % 2,1ekoa eta Araban % 1,0koa. Hala ere, 2005eko lehenengo hiruhilekoan txikizkako merkataritzaren sektorean izan ziren landunak % 1,5 gutxiago izan ziren, aurreko hiruhilekoaren aldean, Euskal AEko guztizkorako.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Perez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es